

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Amurrioko bizitegiatarako III sektoreko plan partzialaren hirugarren aldaketarako plan berezia. Behin betiko onarpena. 16062D108 espedientea

Udalbatzaren 2016ko irailaren 29ko erabakiaren bidez, behin betiko onarpena eman zion Nerea Santamaria Ordeñanak sustatutako Amurrioko bizitegiatarako III sektoreko plan partzialaren hirugarren aldaketarako plan bereziari, zeinak lurzail barruko okupazio baldintzei dagokie (plan partzialaren eraikingintza-ordenantzeen 18. artikulua).

Arabako Foru Aldundiko Hirigintza Planeamenduaren Administrazio Erregistroan gordailutu beharrekoa gordailutu eta gero, hala xedatzen baitu Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak bere 89.3 artikuluan, argitara ematen da ALHAOn, onartutako hirigintzari buruzko araudiarekin batera.

Plan bereziaren espediente hori behin betiko onartzeari buruzko ebazpenak administrazio bidea amaitzen du eta haren aurka interesdunek administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez dezakete bi (2) hilabeteko epean, egintza jakinarazi zein argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita, EAeko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan (Barroeta Aldamar kalea, 10- 2. solairua, Bilbo).

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Amurrio, 2016ko urriaren 27a

Alkatea

JOSUNE IRABIEN MARIGORTA

Onartutako erredakzioa:

18. artikulua. Familiabakarreko edo bi familiako etxeak izateko sortutako eraikinek lursail bakoitzaren barruan har dezaketen gehienezko azalarea 225 metro karratukoa da. Fatxadaren gehienezko luzera 20 metrokoa da